

BI ARNAS

IRENE ELORZA GEREÑO

Torturaren gaiari buruz Zinemira sailean aurkeztu den bigarren film dokumentala ezagutzeko parada izango da gaur, Principe aretoan. *Bi arnas* Jon Mikel Fernandez Elorz (Donostia, Gipuzkoa, 1983) kazetariaren lehen film luzea da. Iratxe Sorzabalen kasuan sakontzen du dokumentalak, berak sufritutako torturak berarengan zein bere ama Mari Nievesengan eragin duen sufrikarioa eta urratu ezin izan duten isiltasuna islatzen ditu lan honen. Torturaren gaineko testigantza hori, beste lekukotza batzuekin uztartzen da flimean. Besteak beste, torturak salatutako Nekane Txapartegik, Paco Etxeberría mediku forentseak eta Serge Portelli epaileak parte hartu dute filmaketan.

Zerk bultzatuta erabaki zenuen Iratxe Sorzabal eta Mari Nieves Díazen istorioa kontatzea?

Duela urte eta erdi Iratxeren inguruak nirekin jarri ziren harremanetan Iratxeren epaiketa gerturatzeko ari zelako eta, Euroaginduak tarteko, torturaren afera berriro azalera tuko zelako. Ez dut esperientziarik zinemagintzan baina kazetari lanetan ibili naiz urte luzez; beraz, esan daiteke gidoigintza ez zaidala arrotza egiten. Erreportaje bat egiten duzuean bezala, buruan gidoia osatzen hasi nintzen, baina, nola islatu hori

Isilarazitako bi arnasek arteko elkarrizketa ezinezkoa

ikusentzunezko hizkuntzan? Hasiberriak ginen eta prozesuan ikasi dugun zerbait izan da.

Sosik gabe hasi ginen proiektuarekin eta horrek zama suposatzen zuen, baina azken txanpan auzolanean lortu genuen diru hori. 300etik gora pertsonak egindako ekarpenek eskertu lortu genuen finantziak eta oso eskertuta gaude. Ekonomikoak gain, bestelako ekarpen pila jaso dugu. Lan koral bat izan da.

Aurtengo Zinemiran torturaren gaiari buruz erakutsiko den bigarren dokumentala da zuena.

Ander Iriarteren *Karpeta urdinak* lanak tortura salatzeke orduan ekarpen oso aberasgarria egiten du eta oso adierazgarria da 70. edizio honetan torturari buruzko bi dokumental egoitea. Nire ustez, torturaren zauria ez dela itxi adierazten du horrek. Nahiz eta biak izan torturari buruz, gureak beste norabide bat du, askoz pertsonalagoa; mikrorra joan gara, fokoa asko txikitu dugu eta ama-alaba batzuen istorioa kontatu dugu. Torturak zeharkatzen du haien harremana, duela 20 urte torturatu zutelako Iratxe.



Jon Mikel Fernandez Elorz zuzendaria.

ALEXABRIL

Berak behin bakarrik hitz egin zuen torturaz, torturatu eta gutxira Euskaldunon Egunkariari eskaini zion elkarrizketa batean. Orduz geroztik berak ez du nahi izan torturaz hitz egin eta amarekin, berriz, ez du inoiz hitz egin horri buruz. Ohartu ginen istorio hori zegoela: torturaren zauri hori zure gertukoekin konpartitzeko ezintasun horretan eta isiltasun horretan. Inoiz gertatu ez den elkarrizketa hori irudikatzen saiatu gara dokumentalaren bitartez, modu metaforiko batean. Zuzenean hitz egin ez badute ere, dokumentalean elkarrizketan jartzen ditugu Iratxe eta Mari Nieves.

Torturen ondorioak sakonak eta iraunkorrek direla ikusten da.

Torturatu guztiek daukate berriro torturatuak izateko beldurra, betirako irauten duena. Aldi berean, zure ondorengoek ere beldurra dute. Dokumentalean jasotzen den Nekane Txapartegiren ahotsak ekarpen hori egiten du. Kasu honetan bere ahotik entzuten dugu ama torturatuak nola islatzen duen bere beldurra bere alabarengan. Zentzu horretan Nekaneren testigantza oso aberasgarria da dokumentalean. Nekanerengana jo genuen iruditzen zaitzaigulako bazi-tuela Iratxeren kasuarekin paralelismo ugari; batetik, garai bertsuan atxilotu zituztelako, antzeko torturak pairatu zituztelako, eta emakume izateak baduelako beste zehar-lerro bat ere.

Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus
naiz: